

"Garai haik!" Etxarri Aranatz

Ixabel Begiristain Igoa
DBH 3. eta 4. kurtsoak 1. saria
Altasuko Aralarko Mikel Donea BHI



Nieves: Izena eztezu galdetuber, ezta biher?

Ixabel: Ba... nola deitzen za?

Nieves: Ni, ne izena da Maria *Nieves* Iraurgi Lazkoz ,ta jelo nintzen Etxarri Aranatzan catorce de julio de 1937.

Ixabel: Eta ze jaio ziñen Etxarrin?

Nieves: Etxien bertan.

Ixabel: Bei, eta zenbat anei-arreba jaio ziñeten?

Nieves: hamar, eta ni nintzen bigerna ,bigerna

Ixabel: Eta nun zon ... nun bizi ziñeten?

Nieves: han bertan, ezkondu nintzenien etor nintzen bizitzia beste etxiatia beye beti bizi izen neiz han eta ez neiz iñoiz atia Etxarritik sekule ezkondu artien.

Ixabel: Eta zu etxie nola deitzen zan? Zu etxian izena.

Nieves: Artxeia , Artzeyana.

Ixabel: Eta baziñazkazubien etxien animaliyek ta aberiek ta...

Nieves : Bei, giñazkaun lenbizi idiyek, gero saldu genittuben idiyek beye. Idiyek, beyek...

Ixabel: Txerriyek?

Nieves: Txerriyek, olluek ,zaldiyek...

*Ixabel:*Zaldiyek?

Nieves: Bat . Bat o hola ureitzen zan eta leen ardiyek horregatik da etxie Artxeian etxie.

Ixabel: A bale, bei.

Nieves: Gio jendu zebien ni txikiye nintzenien jendu zittubien ardiyek beye horregatik da etxie "Artxeian etxie".

Ixabel: Ze beye denak ez zien kaitzen etxe barnen?

Nieves: Bei, a ez batzuk ureiko zittubien kanpuen eztakit. Beye bestelas dena bei, bestiek, denak eta etxiek zazkan hiru planta, bekue bueno lau. Bekuen sukeldie eta animaliyek, eta gero beste pisuen lo eitteko eta denak eta gero, beste biyek: batien patatak, alubiyek eta gauzok eta bestien belarra eta agotza

Ixabel: Joe! Eta ziñakazuebin dena pixubetien? Eitten ziñubien denek lo pixu iguelien?

Nieves: Bei, bakizu ze haundiye dan.



Ixabel: Bei bei beño ... zenbat gela de?

Nieves: Ba de... Bat, bi, hiru, lau, bost, sei gela lo eitteko eta gero ganbazaletie haundibet, bañue eta komedorie.

Ixabel: Eta hori pixu betien dena?

Nieves: Bei hori dena pixubetien eta gero bestiek ba gauzek ureitzeko kosetxa, patatak, alubiyek, gariye de yamaten giñuben gora, gariye...

Ixabel: Bei eta horregatik erre zan gero etxie ez?

Nieves: Erre zan bei, aldameneti e! Beye hartu zen agotzak eta ola, erre zan. Aldameneko etxiek zakan cocina económica o hoik eta patetik sartu zan, patien hola sartu zan gu etxia tenpets batien eta guartu be sube barneti barneti barneti eta ya punb! Saltatu zen telletubek ta denak.

Ixabel: Joe!

Nieves: Bei, subakin.

Ixabel: Eta eskola fan ziñeten anei- arreba guziyek?

Nieves: Denak fan giñen denak eskola, utzi be egunbet!

Ixabel: Ta zenbat urtekin hasten zan eskola?

Nieves: Ni hasi nintzen lau urtekin, eskolan.

Ixabel: Laukin...?

Nieves: bei.

Ixabel: Ta buketu?

Nieves: eta hamalu urtetaño.

Ixabel: joe... hamar urte!

Nieves: hamalau urtetaño ibildu nintzen

Ixabel: eta nun zon eskola?

Nieves: Eskola zon... nola don guai biblioteca?

Ixabel: Bei, liburuteye.

Nieves: hor! hoiek zien eskolak.

Ixabel: ioe... Beye guai daude pixu piyat?

Nieves: Bei beye zon dena oso zarra ta zon dena txuriten ta orduben bota zebien hori eta



ein zebien eskola. Nola don guai ikastola?

Ixabel: Bei

Nieves: Ba ein zebien or eskola berriye.

Ixabel: Eta faten ziñeten neska ta mutillek batia o?

Nieves: Ez, banaka. Yoten zien sei gela, haundiyez ez, oso haundiyez. Hiru gela mutikuendako eta beste hiru neskatuendako

Ixabel: Eta edadiék zen nastuik?

Nieves: Bei, ibiltzen zien... bueno nahastuta ez gutxis goabea antzeko edadie zakabienak bi urte ta lau urtekuek , lau urtekuek ta zortzikuek... Ta hola. Beye batzuten, batzuk atiatzen zebien hamabi urtetan ui hamabi.... hamalau urtetan guañik pasatube iguel hirugerna gela.

Ixabel: Jajaja

Nieves: Hori segun, zergati jende asko ordubén ez zan faten eskola udén. Faten zien sorua ta hola...

Ixabel: Ta ze ikesten ziñubien? Ze klasiék zen?


Nieves: Pues, denetati denetati!

Ixabel: Geografía ta...

Nieves: Geografía, historia...

Ixabel: Matematika?

Nieves: Matematika, lengua, naturaleza, ortografía y caligrafía que no falten! Ortografía y caligrafía...



Ixabel: Historia ta ola?

Nieves: Historia ta denak, denetatik! Eta entziklopediat, hola aundiye . Dena han zon!

Ixabel: Jajaja

Nieves: Dena zon! Dena liburu hartan, entziklopedian. Dena zon!

Ixabel: Eta... iye. Baziñazkazubien eskursiyuek ta hola? Faten ziñeten nunbeittia?

Nieves: Bueno, ba faten giñen igual egunbetien kamion batien sartuta denok eta Urbasa!

Ixabel: ijajaja Kamion batien?

Nieves: Bei, pentsatzeko e. Beye bestelas ez.

Ixabel: Mendira ta hola?

Nieves: Ez, ez giñen faten, ez. Faten giñen gu kontus, ibeire ta hola igeiketa, Puttobiokia ta...

Ixabel: Bei.

Nieves: Mutikuek faten zien presa, horrutza ibeire eta gu Puttobiokia. Bakizu nun don Puttobioki alezta? Faten za Zuriñen ateitti...hortik

Ixabel: A bei, hortik bera, ez?

Nieves: Bei.

Ixabel: Eskole eskuñetan

Nieves: Beye aurrexo. Nola faten dan Pili, bakizu nun bizian, ez? Ne lagune.

Ixabel: Ni izenengati...

Nieves: Bueno ba... Utzubar aldia, ta da errekat etortzen dana Lizerratik

Ixabel: A bei, bakit bei, ze esaten dezun!

Nieves: Lizerrati etortzen da.

Ixabel: Ta noiz hasi ziñen lanien o lanak eitten noiz hasi ziñen?

Nieves: Lanien geldittube beti, ze hamasie urte nazkan nik eta ama geixo zon eta nazkan zazpi, giñen zortzi anei eta ama yonzan guatzien urtian eta ni yondu nintzen hamasei urtekin

Ixabel: Zaintzen?

Nieves: Dena, lan guziek eta orduban ez zon ezta labadorik ezta ezez, garbitzen giñun dena eskus... Bei. Eta gero hemezortzi urtekin asi nintzen fabriken lanien

Ixabel: Estaziyo hortik...

Nieves: Pertxak bei pertxak.... hasi nitzen or, beye neguben da hola faten nintzen jostia eta ibildu nintzen de hamalau urtetik hemezortzi urteta monjetan cultura general.

Ixabel: lkesten?

Nieves: Ikesteri bei

Ixabel: Joe ba orduban iketia ziñuben!

Nieves: Bei bueno, gaubetan beti de iketia zerbeitt.

Ixabel: Ze josten ta hola?

Nieves: Josten debei.

Ixabel: Zeñek yakusten zebien hori?

Nieves: Ba lehendabizi fan nintzen e,... Enkarnin amakin, bizi zien hemen eta gero Txisperona bakizu ba horrekin eta gero Uxuen amiñakin.

Ixabel: joe!

Nieves: Bei jaja

Ixabel: Herri guzie ez? Jaja

Nieves: Bei Bei.

Ixabel: Eta kanpua lania faten ziñen?

Nieves: Ez.

Ixabel: Eta herriekuek? herriekuek faten zien kanpua lania?

Nieves: Bei, Denak! Ne etxeti denak atia zien lania kanpua, denak. Ni bakarrik geldittu nintzen zengati ama ezon ongi ta geldittu nintzen biakin, beye beste denak fan zien denak lania kanpua. Izeba primi fan zan Bilbao, izeba Ascen fan zan Gasteiza...

Ixabel: Izeba Socorro debei?



Nieves: Bei, izeba Socorro debei Iruña, osaba Pello Legazpie eta... izeba, osaba Joxan ai osaba Joxan! , osaba Eduardo Barzelona yoten zan , eta izeba Isabel eta ni etxien. Isabel zan txikiye

Ixabel: Txikina ta haundina.

Nieves: Bei, ni ezkontu nintzenien Isabelek zazkan bedratzi urte aber... Mikel bezelakue? Iguel! Jajaja

Ixabel: Jajaja. Eta jateko ta bazkayek eitteko ze ziñakazubien?

Nieves: Bua... Dena hartuta etxetik. Alubiyek azakin, porrukek, berdurek, berdurek asko gu aittek ureitzen zen batziat eta hor denetatik zon. Gero hiltzen giñuben bi urde o hiru iguel eta urdayazpikuek, lomuek eta denak, txistorrak

Ixabel: Eta gosaltzeko ta hola debei zan janei iguela?

Nieves: Bei, dena iguela zan, dena iguela. Eta gio iguel jartzen giñun alubiyek su bajuen eta alubiyek eta aza,. beti alubiyek eta aza faltabe, eta patatak debei. Gio botatzen giñuben urdayazpikue, txistorra,... alubiyai. Gio jeiyen iguel ba... haragiye ureitzen giñuben ta hola, beye bestelas etxetik asko, olleskuek iguel.

Ixabel: Eta kanpua atiatzen launbetetan ta hola noiz hasi ziñeten?

Nieves: Kanpua, egunero iguel! Beye atia barreta sekule!

Ixabel: Txikiten iguel hamar urtekin kanpua jolastia?

Nieves: Bei, bei. Beti kanpuen, beti kanpuen!

Ixabel: Eta musika ta bazon zerbeitt?

Nieves: Musika buf...menuda musika. Giñuken banda, banda de musika, ta jeyero musika asteburu guzien.

Ixabel: Joe, guai beño hobel!

Nieves: Guai beño hobe hori egiye. Atsalde guzien musika bandakin , Etxarriko banda eta zinie atxaldien eta gaubien yoten zan.

Ixabel: Atxalde eta gaubien?



Nieves: Bei, atsaldien faten zien haurrek eta gaubien ba haundiyek. Bei bei, musika akatu ta zinia.

Ixabel: Ta ze faten ziñeten launekin zinia ta hola?

Nieves: Bei launekin. Bei bei launekin eta gero ba nobiyuakin. hemeretzi urtekin ba hasi nintzen nobiyuakin ta... zinia nobiyuakin!

Ixabel: Ta noiz ezautu ziñon aittunai?

Nieves: Jajajajaja

Ixabel: Plazan dantzatzan o... jajaja

Nieves: Bei, bueno eske ikusten giñen kalien pixkat, ta beiretu pixkat, ta hola ta gero ba... hasi giñen dantzan ta... jajajajaja

Ixabel: ijajaja. Ta gurasuek uzten zizubien kanpua atiatzen?

Nieves: Bei, bei beye ordubet esan eta ordubortan. hamarretako nobiyuakin eta hamarretako etxia, e! Eta urtiatien akordatzen neiz fan giñela Arbizuko festeta eta hamarrak ematen bidien ze lasterrak ailtzeko etxia! Bei bei!

Ixabel: Eta zigortu zuzubien o?

Nieves: hombre...

Ixabel: ijajaja

Nieves: Bakizu fan giñen, fije zeittez ez zubieten uzten de dantzatzan mutikuekin gaztieki giñela.

Ixabel: Ez?

Nieves: Ez, batzui iguel bei beye nai ez eta bestiatzui dez. Eta fan ber giñen monjekin eskursiyua Zarautza eta denok uff!!...

Eta jei hartan fan ber zien dantza aittune eta beste lagunbet ta nik de dantzatu nen Akabos enintzen fan Zarautza! jajaja

Ixabel: jajaja Zigortuik ez?

Nieves: Zigortuta bei! Jaja

Ixabel: Jajaja

Nieves: Kontubek beti iguel izeten die, beti iguel.

Ixabel: Ya jaja. Eta Zarautza ta ola ze faten ziñeten playa?



Nieves: Playa! Ni ez nintzen fan playa bueno, esanber duzut. Ezkondu ondorien. A ez, yondu nintzen kolonietan Fuenterrabien! Hondarribin yondu nintzen illatit.

Ixabel: Osue?

Nieves: Bei, bei! Hillate osue.

Ixabel: Ta hori?

Nieves: Zengatik aittek eitten zen lana e zementosen eta fan giñen denak. Denak! Hameiru urtetan.

Ixabel: Joe!

Nieves: Ganbietetzen urtiek e! Beye bei, ni yondu nintzen hillatit eta izeba Primi ez det uste fan zanik, beye izeba Ascen eta osaba Pello eta izeba Sokorro debei. Izeba Sokorro yondu zan Zudairen hor dakabie debei...

Ixabel: zu...?

Nieves: Zudaire, hor mendiyen hor.

Ixabel: ioe. Eta oporreta familiyakin ez ziñeten faten ez?

Nieves: Bueno bueno bueno.... Bueno ezta pensatu de! Ezta pensatu de fatie, ai ama. Hemen zen oporrak guteko! Etortzen zan jendie beraneatzia Etxarria.

Ixabel: Beraneatzia?

Nieves: Bei, oporreta! Beye pasatzen zebien ude guzie hemen! Iguel hiru hillate.

Ixabel: A ze kanpiña etortzen dien bezela?

Nieves: Ez ez etortzen zien izeba Presenen amiñan etxia. Aritzaldia?

Ixabel: Aritzalko?

Nieves: Bei. Ez! Hor nola dakabien karnizeye?

Ixabel: A bei!

Nieves: Hor zon fonda, Zapateron etxie debei izan zen fonda, etxe guzie.

Ixabel: Ze hotel txikibet bezela?



Nieves: Bei eta gero eskiñen nola don plaza? Sala Fernando ta oina etxiat... guai do itxita. Exkiñen plazan!

Ixabel: A bei!

Nieves: Ba hori debei .Ta ostatzen zien or, eta ez dakizu bueno zenbat jende etortzen zan, eta pasatzen zebien primeran! puff...

Ixabel: ioe eta geña festetan eta hola!

Nieves: Bueno bueno, fije zeittez hor dakat postala Boinas Elosegi. Aittuezu zuk alezta Boinas Elosei ez? Bueno ba Tolosakuek die eta etortzen zien honutz eta atiatzen zan gukin neskatue. Laune! Eta guai bi urte o hola esan zuten izeba Primik : - Do postal bat hemen zurie!- Eskribittu zutela ee Pilar, dazkiyo Pilar, Pilartxo Elosegi ba hoik hoik die.

Ixabel: Joe!

Nieves: Etortzen zien beraneatzia honutz.

Ixabel: Bilbotik honutza?

Nieves: Tolosati, Tolosati!

Ixabel: A! Tolosati.

Nieves: Beye Bilboti debei etortzen zien. Bei bei! Ze ustezu ba?

Ixabel: Joe! Eta bazkayek eta eitten zien familiyen beti?

Nieves: Bei beti.

Ixabel: Launbetero, egunio o nola?

Nieves: Nola? Guai bezela?

Ixabel: Bei.

Nieves: Bakoitze be etxien.

